

PRENTSA OHARRA

Udalak ez du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenaren aurkako helegiterik aurkeztuko

Oñatiko Udalak ez du EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak langile baten kaleratzeari loturik ebazpenaren kontrako helegiterik aurkeztuko. Zehatz esanda, duela urtebeteko gertaera dakar auziak: lanpostu bat denbora mugatu batez betetzeko proposamena egin zitzaion lan-poltsan zegoen hautagai bati; baina, akats bat izan zen kontratazio prozesuan, eta, horrek, kontratua bertan behera utzi beharra ekarri zuen. Ebazpenak “desegokitzat” du kaleratzea, eta, horrenbestez, Langileen Estatutuaren 56. artikulua eta Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 110. artikulua araberako 493,49 euroko kalte-ordainaz aparte, 30.000 euroko konpentsazioa emateko agindu dio Udalarari —oraingoraino argitaratu barik dagoen Gizarte Eskubideen Europako Batzordearen (GEEH) txosten baten edukian oinarritzen da erabaki judiziala—.

Talde juridikoarekin aztertuta, haren aurka ez egitea erabaki du Oñatiko Udalak. Hori bai, azken asteotan zenbait hedabidetan argitaratu den bezala, “harriduraz” hartu du kalte-ordain nagusia, 30.000 eurokoa, argitaratu barik dagoen txosten batean oinarrituta egote hori —alegia, erabakiak, onartu eta argitaratu barik dagoen arau bat du oinarrian—, eta azaldu du horrek eragina izan dezakeela konpentsazioaren zenbatekoan, ez direlako arau horren balizko xehetasunak, salbuespeneko kasuak... ezagutzen —tartean, kasuaren berezitasunak bat etor zitezkeen salbuespen horiekin edo arintzeekin—. Beraz, haren esanetan, ez da indarrean diren araubideetan behar moduan oinarrituriko kalte-ordain erreala bat. Era berean, gogorarazi du Oñatiko kasua bere horretan ez dela salbuespena, bai, ordea, ebazpenean jaso den erabakia. “Estatuan gisa honetako erabaki gutxi daude. Horren adierazle, ebazpenak izan duen oihartzuna”, argitu du.

Dena den, onartu du, legalki aplikatu beharrekoa izan arren, ez zaiola bidezkoa iruditzen Langileen Estatutuaren 56. artikulua eta Lan Arloko Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 110. artikulua araberako 493,49 euroko kalte-ordaina. “Horixe zen Oñatiko Udalak aplikatu behar zuena, horixe baitzen kasu hau aurreikusia zuen oinarri juridiko bakarra. Erakunde batek araubideetan oinarriturik hartu behar ditu erabakiak. Ezin daiteke ahaztu funts publikoak kudeatzearen ardura duela”, azaldu du. Eta gogorarazi du Udalak hasieratik zuela onartua kontratazio prozesuan izaniko akatsa, eta, hori horrela, hasieratik agertu dela prest langileari kalte-ordaina ordaintzeko. Era berean, erabakia hartzerakoan, prozesuak izan ditzakeen kostu ekonomikoak eta pertsonalak ere izan ditu kontuan.

Bide batez, Udalak uste du ebazpena aurrekari izan daitekeela: “Nork daki. Agian, ebazpen hau, aurrekari izan daiteke etorkizuneko ebazpenetarako, langileek ez ditzaten horren konpentsazio mugatuak izan kaleratze kasuetan”.